



>> Lan-istripuak

DEFINIZIOA:

Besteren kontura lan egitean langileak pairatzen duen gorputzeko edozein lesio.
(LGSS 115. art)

Beraz, istripu bat era honetara definitzeko ondoko ezaugarriak beharrezkoak dira:

1. Langileak gorputzean lesioa pairatzea. Lesioa, zauriak, kolpeak edota gaixotasunak eragindako gorputzaren kaltea da. Gorputzaren lesiotzat jotzen dira baita arrastoak edota gaixotasun psikiko eta psikologikoak ere.
2. Besteren kontura lan egitea.
3. Istripua lan egitearen ondorio izatea, hau da, lana eta lesioaren artean kausalitate zuzeneko erlazioa egotea.

Lesioa, bera bakarrik, ez da lan-istripuztat hartzen.

LAN-ISTRIPUTZAT hartzen diren beste balizkoak :

➤ **“In itinere” istripua** : Langileak jasaten duena lantokirako joan-etorrian. Ez dago ordu-mugaketarik.

In itinere istripuan 3 elementu beharrezkoak dira:

1. Joan-etorriko bidean gertatzea.
2. Lana eta istripuaren artean etenaldiak ez gertatzea.
3. Ohiko ibilbidea erabiltzea.

➤ **Istripua eginkizunean**: Eginkizuna betetzeko ibilbidean langileak jasandakoari zein bere lanaldian eginkizuna betetzean gertatutakoari deritze.

➤ **Izaera sindikaleko hautazko karguak** betetzeagatik langileak pairatzen dituenak edota kargu horien berezko funtzioak betetzeko tokirako joan-etorrian.

➤ **Zereginen** ondorioz gertatutakoak, nahiz eta **bere maila profesionalari dagozkionak** ez izan, langileak betetzen dituenak enpresariaren aginduei jarraituz edota bere kabuz betetzen dituenak enpresak funtzionamendu ona izan dezan.

➤ **Salbamendu ekintzetan** edo antzerakoetan gertatutakoak, betiere lanarekin zerikusia dutenean.



- **“Gaixotasun profesionalen” koadroan sartuta ez dauden gaixotasunak:** langileak bere lana betetzean har ditzakeenak, betiere egiaztatzen denean gaixotzearen kausa bakarra lana betetzea izan dela.

- **Langileak lehenago izandako gaixotasun edo gaitzak,** istripuaren osteko lesioaren ondorioz larriagotzen direnak.

- Istripuaren ondorioak, **gaixotasun interkurrenteen** eraginez beren izaeran, iraupenean, larritasunean edo amaieran aldatzen direnak, istripuak berak zehaztutako patologia-prozesutik etorritako konplikazioak sortuz edo bere jatorria gaixoa sendatzeko eremu berrian hartutako gaitzetan izatea.

- **Zuhurtziagabetasun profesionalen ondorioz gertatuak:** lan edo lanbide baten ohiko jardueratik datozen istripuak dira, hauek istripua jasan duenarengan konfiantza sortzen dutenean.

EZ dira LAN-ISTRIPUTZAT hartzen:

- Lanarekin loturarik ez duten **ezinbesteen ondorioz gertatuak**, hau da, istripua gertatzean ez duenean inolako erlazorik egin den lanarekin. Hauen eraginetarako ez dira ezinbestekak intsolazioa edo tximista bezalako naturako fenomenoak.

- Istripua jasan duen langilearen **dolu edo zuhurtziagabetasun ausartegiaren ondorioz gertatutakoak.**